

33. ALDIZKARIA - 2005ko martxoaren 18a

89. ALDIZKARIA – 2013ko maiatzaren 13koa

2.2 Art.ren aldaketa

10. ALDIZKARIA - 2015ko urtarrilaren 16a

11. Art. -aren aldaketa

13. ORDENANTZA

BARAÑAINGO	UDALERRIAN	ARRISKUTSU	GERTA
DAITEZKEEN	ANIMALIAK	EDUKITZEA	ARAUTZEN
ORDENANTZA			DUEN

Barañaingo Udalak, 2004ko azaroaren 25ean egin osoko bilkura arruntean, erabaki zuen, legeak eskatzen duen quoruma zuela, hasiera batez onestea "Barañaingo udalerrian arriskutsu gerta daitezkeen animaliak edukitzea arautzen duen ordenantza".

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325.1.b) artikuluan, maiatzaren 31ko 35/2002 Foru Legeak ematen dion idazketan, xedatutakoari jarraikiz, erabaki hori 2005eko 4. Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu zen, urtarrilaren 10ean, baita Barañaingo Udalaren iragarki oholean ere.

Jendaurrean egoteko legezko aldia iraganik inork inolako alegaziorik, kexarik edo oharrik aurkeztu gabe, eta aipatu Foru Legearen 325.1.c) artikulua bukaerako aginduen ondorioz, ordenantza behin betikoz onetsizat jotzen da, eta haren testu osoa argitaratuko da, behar diren ondorioak izan ditzan, Toki Administrazioari buruzko Foru Legearen 326. artikuluari jarraikiz.

Argitara ematen da agindua betetzeko asmoz, eta ohartarazten da behin betiko onespén honen aurka hauetako bideren bat erabil daitekeela:

a) Berraztertze errekurtsoa, Barañaingo Udaleko osoko bilkurari zuzendua, hilabeteko epean, iragarki hau Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunetik hasita.

b) Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, zuzenean Nafarroako Auzitegi Nagusiari zuzendua, bi hilabeteko epean, iragarki hau Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunetik hasita.

c) Gora jotzeko errekurtsoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, erabaki hau Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen denetik hasita.

Barañainen, 2005eko otsailaren 15ean. _Alkate udalburua, Iosu Senosiain Ibáñez.

ERANSKINA

BARAÑAINGO UDALERRIAN ARRISKUTSU GERTA DAITEZKEEN ANIMALIAK EDUKITZEA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

Ordenantza honen xedea da Barañaingo Udalerrian arriskutsu gerta daitezkeen animaliak edukitzeari buruz aplikatu beharreko araudia ezartzea, edukitze hori pertsonen, ondasunen eta beste animalien segurtasunarekin bateragarria izan dadin; hori dena 50/1999 Legeari eta lege hori garatzen duen 287/2002 Errege Dekretuari jarraituz, eta Udalaren eskumen eta betebeharren esparruan.

1. art. Xedea.

a) Arriskutsu gerta daitezkeen animaliak edukitzeko araudia ezartzea, edukitze hori pertsonen, ondasunen eta beste animalien segurtasunarekin bateragarria izan dadin.

b) Etxeko zakurren artean, arriskutsu gerta daitezkeenak zein diren zehaztea.

c) Udalaren lizentzia eskuratzeko bete beharreko baldintzak ezartzea eta arriskutsu gerta daitezkeen animaliak edukitzeko exiji daitezkeen segurtasun neurriak finkatzea.

2. art. Definizioak.

Arriskutsu gerta daitezkeen animaliatzat hartzen dira, 287/2002 Errege Dekretuan aipatzen direnez gain, ondotik zehazten diren hauek:

1._Izatez basa direnetakoak izanik, etxeko gisa erabiliz, edo lagun egiteko, pertsoneri nahiz beste animalia batzuei lesioak eragin edo heriotza eman diezaieketen espezie edo arrazatakoak direnak, eta ondasunei kalte egin ahal dietenak, erasokorrak izan ala ez.

2._Arraza hauetako zakurrak: Pit Bull Terrier, Staffordshire Bull Terrier, American StaffoRshire Terrier, Rottweiler, Dogo argentinarra, Fila Brasileiro, Tosa Inu, Akita Inu. Atal aldatua (2013-05-13ko 89. NAO n argitaratua).

3._Edozein espezietaoak izanik, eraso eta defentsarako berariaz erakutsi edo heziak izan diren animaliak.

4._Zakurren artean, aiurri erasokor handia dutenak edo pertsoneri nahiz bestelako animaliei behin baino gehiagotan eraso egin dietenak.

5._Aurreko atalean aipatzen diren kasuetan, arriskutsutasun hori badela erabaki beharko da, ofizioz edo salaketa baten bidez hasita, al baitari ofizial edo kolegiatu batek alde aurretik txostena eginda.

6._Honako ezaugarri hauen guztien edo hauetako gehienen jabe diren zakurrak:

a) Gihar sendoak, itxuraz indartsua, mardula, eite atletikoa, zalutasuna, bizkortasuna eta erresistentzia.

b) Aiurri handikoa eta adoretsua.

c) Ile motza.

d) Bularraldeko perimetroa 60 cm-tik 80 cm-ra bitartekoa, eta 20 Kg-tik goitiko pisua.

e) Tamaina handiko burua, kuboidea, mardula, garezur zabal eta handia, eta masail gihartsu eta atereak. Masailezur handi eta sendoak; aho mardula, zabala eta sakona.

f) Lepo zabala, gihartsua eta motza.

g) Bular sendoa, zabala, handia eta sakona; saihets makotuak eta bizkar gihartsu eta laburra.

h) Aurreko gorputz-adarrak, paraleloak, zuzenak eta mardulak; atzeko gorputz-adarrak, berriz, oso gihartsuak, hanka luze samarrak, angelu txikia sortuz.

3. art. Animalia arriskutsuak edukitzeko lizentzia.

1._Arriskutsu gerta daitezkeen animalien jabe edo edukitzaile direnek udal lizentzia bat izan beharko dute nahitaez. Lizentzia eskatu beharko da animalia eskuratu behar denean, edo 6 eguneko epean, animaliak pertsonari eraso egin dietetik hasita.

2._Lizentzia eskuratu edo berritzeko, honako baldintza hauek bete beharko dira:

a) Adinez nagusi izatea eta ez egotea ezindurik animalia behar bezala zaintzeko.

b) Ez izatea inoiz kondenatua honako delitu hauetakoren batengatik: homizidioa, lesioak, torturak, askatasunaren edo osotasun moralaren aurkakoak, sexu-askatasunaren eta osasun publikoaren aurkakoak, lotura talde armatu batekin edo droga salerosketarekin. Ildo beretik, arriskutsu gerta daitezkeen animaliak edukitzeko eskubideaz gabetua ez egotea epaile baten ebazpenagatik.

c) Arriskutsu gerta daitezkeen animalien araubide juridikoari buruzko abenduaren 23ko 50/1999 Legearen 13. artikuluko 3. idatz-zatian zehaztu arau-hauste larri edo oso larriengatik zehapen osagarririk jaso ez izana inoiz. Nolanahi dela ere, lizentzia eskuratu edo berritzen ahalko da, hura aldi baterako eteteko zehapena jaso izanik, baldin eta, eskabidea aurkezteko unean, eteteko zehapen hori osorik bete bada.

d) Gaitasun fisiko eta psikologikoaren jabe izatea.

e) Erantzukizun zibileko aseguru formalizatu izanaren ziurtagiria, hirugarrenei egiten ahal zaizkien kalteengatik, ehun eta hoge mila euroko estaldurarekin (120.000 euro).

f) Kasuan kasuko ordenantzetan onesten den udal tasa ordaintzea.

3._Lizentzia eskatzera beharturik daude arriskutsu gerta daitezkeen animalien jabe edo edukitzaileak, baldin eta Barañainen bizi badira, Udalerrian erroldaturik ez egonagatik, edo haiek salerosi nahiz trebatzeko jarduera Barañainen egiten bada. Era berean, lizentzia hau eskatu beharko dute animalia arriskutsuen jabe edo edukitzaileek, animaliak jarraian hiru hilabetez bederen Barañainen egon behar badu. Betebehar hori izatea alde batera utzirik, edozein herritarrek jakinarazten ahalko dio Barañaingo Udalari mota honetako animalien jabe edo edukitzaile diren pertsonak badirela, Barañaingo Udalak legeen arabera bidezkoak diren frogatze eta ikuskatze urratsak eman ditzan.

4._Lizentziak bost urteko iraupena izanen du, eta berritzen ahalko da iraupen bereko beste aldi batzuetarako. Nolanahi dela ere, Barañaingo Udalak ofizioz edo salaketaren ondorioz begiratzeko ahalko du lizentzia eskuratzeko bete beharreko baldintzei eusten ote zaien, eta haietakoren batean ez dela betetzen ikusiz gero, lizentzia deuseztatzen ahalko du.

4. art. Gaitasun fisikoaren ziurtagiria.

1._Ezin izanen dira arriskutsu gerta daitezkeen animalien titular izan animalia behar bezala zaintzeko eta erabili, mantendu eta menperatuko dutela bermatzeko behar den gaitasun fisikoa

ez duten pertsonak, hala xedatzen baita Arriskutsu gerta daitezkeen animaliak edukitzeko araubide juridikoari buruzko abenduaren 23ko 50/1999 Legeko 3.1.a) artikuluan.

Gaitasun fisikoa ziurtagiriaren bidez egiaztatu beharko da, eta hori eskuratzeko gainditu beharko dira honako arlo hauetan ezgaitasun fisikoa dakarkeen eritasun edo ezintasunik ez dagoela ziurtatzeko egiten diren frogak:

- a) Ikusteko ahalmena.
- b) Entzuteko ahalmena.
- c) Lokomozio sistema.
- d) Sistema neurologikoa.
- e) Pertzepziotik mugimendura igarotzeko zailtasuna, erabakiak hartzeko orduan.
- f) Bestelako edozein ezintasun, nahaste edo arazo, aurreko lerroaldeetan aipatu gabea, animalia behar bezala menperatzen dela bermatu ahal izateko ezgaitasun fisikoa izan daitekeena.

5. art. Gaitasun psikologikoaren ziurtagiria.

Gaitasun psikologikoa ziurtagiriaren bidez egiaztatu beharko da, eta hori eskuratzeko gainditu beharko dira honako arlo hauetan ezgaitasun fisikoa dakarkeen eritasun edo ezintasunik ez dagoela ziurtatzeko egiten diren frogak:

- a) Buru-nahastea eta jokabide-nahastea.
- b) Ebaluatu, hauteman eta erabakiak hartzeko eragozpen psikikoak eta nortasun arazoak.
- c) Bestelako edozein ezintasun, nahaste edo arazo, aurreko lerroaldeetan aipatu gabea, arriskutsu gerta daitezkeen animaliak edukitzeko behar diren buru-ahalmenak murriztuko dituenak.

6. art. Gaitasun fisikoari eta gaitasun psikologikoari buruzko txostenen iraupena.

Ordenantza honetan arautzen diren gaitasun ziurtagiriek urtebeteko iraupena izanen dute, haiek luzatzen direnetik hasita, eta denbora horretan erabiltzen ahalko dira, haien bikoiztuaren, kopia konpultsatuen edo ziurtapenaren bidez, epe horrek dirauen bitartean hasten diren administrazio prozeduretako edozeinetan.

7. art. Segurtasun neurriak.

1._Arriskutsu gerta daitezkeen animalia toki publikoetan ibiltzeko, beharrezkoa izanen da hura kontrolpean daraman pertsonak aldean izatea udal lizentzia eta egiaztagiri bat, ziurtatzen duena animalia hori inskribatua dagoela arriskutsu gerta daitezkeen animalien udal erregistroan, zeina Ordenantza honetako 10. artikuluan zehazten baita.

2._Arriskutsu gerta daitezkeen zakurrek, toki publikoetan, animalia bakoitzaren arraza ezaugarriei dagokien muturrekoa eraman beharko dute nahitaez. Halaber, mota honetako zakurrak kontrolpean eraman beharko dira 2 metrotik beherako kate edo uhal luzaezinaren bidez, eta pertsona bakarrak ezin izanen du zakur bat baino gehiago eraman.

3._Finka, txalet, lurzati, patio, terraza, edo bestelako leku mugaturen batean dauden animaliek lotuak egon beharko dute.

8. art. Jabeen, hazleen eta edukitzaileen betebeharrak.

1._Ordenantzan aipatzen diren animalien jabe, hazle edo edukitzaileek animalia horiek identifikatu eta erregistratu beharko dituzte. Artikulu honetan aipatutako datuetako edozeinetan aldaketarik eginez gero, jakinarazi egin beharko da 15 eguneko epean. Betebehar hauek izanen dituzte:

a) Arriskutsu gerta daitezkeen zakur guztiek identifikaturik egon beharko dute "microchip" baten bidez.

b) Arriskutsu gerta daitezkeen animalia edukitzeko lizentzia eskuratzea hiru hilabeteko epean, ordenantza honek indarra hartzen duenetik hasita.

c) Erregistroan inskribatzea, hilabeteko epean, beren esku duten arriskutsu gerta daitezkeen animalia bakoitza.

d) Udalari jakinaraztea animalia salmenta, eskualdaketa, dohaintza, lapurreta, heriotza edo galera, 15 eguneko epean, haren identifikazioa aipatuta.

e) Animalia eskuratzeko unean animalia erroldatua badago, jabe berriak alde aurretik lizentziaren jabe izan beharko du, eta Udalari jakinarazi beharko dio animalia titultartasun-aldaketa.

f) Animalia erregistroko datuen aldaketa guztiak gehienez ere 15 eguneko epean jakinarazi beharko dira.

g) Urte bakoitza amaitu aurretik, albaitariaren urteko azterketari dagokion ziurtagiria aurkeztu beharko da, baita aseguruaren eta erantzukizun zibileko sariaren kopia konpultsatua ere.

9. art. Erregistroa.

Barañaingo Udalean Arriskutsu Gerta Daitezkeen Animalien Erregistro bat izanen da, Udaleko Osasun Publikoaren Alorraren barrenean, non datu hauek egon beharko baitute:

a) Jabearen izena, helbidea eta NANA.

b) Animalia haztegiaren edo sorlekuaren datuak.

c) Hezi duten zentroaren datuak, halakorik bada.

d) Animalia espeziea, arraza, sexua, ezaugarri-oharra edo ohar erdia, jaioteguna, animalia identifikazio zenbakia, animalia ohiko bizilekua.

e) Albaitari kolegiatuak urtero egindako azterketak, animalia osasun egoera egiaztatzen dutenak.

f) Eraso egindako kasuak (Udalari berehala jakinarazi beharko zaio).

g) Animalia antzuten bada, jabeak bere borondatez hala erabakitzen duelako, erregistroan dagokion orrian inskribatuko da.

10. art. Animalia arriskutsuak erregistratzeko liburua.

Albaitaritzako klinika, kontsultategi eta ospitaleek erregistro-liburu bat eduki beharko dute, zeinetan paratu beharko baitituzte aurreko artikuluan aipatutako datu guztiak, eta jabearen izena, helbidea eta NANA, bai eta arriskutsu gerta daitezkeen animaliak udal erregistroan duen zenbakia.

11. art. Artikulu aldatua (2015-01-16ko NAO on argitaratua)

Arau-hausteak eta zehapenak.

1. Hauek izanen dira arau-hauste oso larriak:

a) Arriskutsua izan daitekeen animalia bat abandonatzea, bere jatorriari buruzko identifikagarriak izan ala ez.

b) Arriskutsuak izan daitezkeen zakurrak lizentziarik gabe edukitzea.

c) Lizentziarik ez duen zakur bat saldu edo eskualdatzea.

d) Animaliak heztea haien erasokortasuna pizteko edo xede debekatueterako.

e) Arriskutsuak izan daitezkeen animaliak heztea, horretarako gaitasun agiririk izan gabe.

f) Animalien erasokortasuna erakusteko xedez egiten diren lehiaketak, erakusketak eta abar antolatzea.

2. Hauek izanen dira arau-hauste larriak:

a) Arriskutsua izan daitekeen animalia aske uztea edo behar diren neurriak ez hartzea haren ihesa edo galera eragozteko.

b) Animalia ez identifikatzea.

c) Animalia erregistroan ez inskribatzea.

d) Arriskutsua izan daitekeen zakurra, toki publikoetan, muturrekorik gabe edo katez lotu gabe egotea.

e) Agintaritza eskudunari datuak edo argibideak emateari uko egitea.

3. Arau-hauste arintzat hartuko da ez betetzea ordenantza honetan ezarritako betebeharretatik edozein, artikulu honen 1. eta 2. zenbakietan aipatzen ez direnak, ordenantza honetan larritzat edo oso larritzat hartzen ez direnak.

4. Aitzineko atalean agertzen diren arau-hausteei isun hauek ezarriko zaizkie:

a) Arau-hauste arinei 150 eurotik 300 eurora bitartekoa.

b) Arau-hauste larriei 301 eurotik 2.400 eurora bitartekoa.

c) Arau-hauste oro larriei 2.401 eurotik 15.000 eurora bitartekoa.

5. Barañaingo Udalak aldian-aldian gainbegiratu eta eguneratzen ahalko ditu aitzineko atalean ezarritako zenbatekoak.

Isuna %50 merkeago ordaintzen ahal da, zehapen prozedura ireki dela jakinarazi ondoko hogeita hamar egun natural iragan aitzin pagatzen bada eta inpugnazio orori uko egiten zaiola dioden idazkia aurkezten bada.

Deskontuz ordainduz gero, prozedura bukatutzat joko da, ebazpen espresik eman beharrik gabe.

6. Bai arau-hauste oso larrien eta larrien bai arinen kasuan, prozedura hasi zenetik sei hilabete iragan eta ez bada zehatzeko ebazpenik eman, hura iraungi eginen da eta jarduketak

artxibatuko ditu ebazpena emateko organo eskudunak, edozein interesdunek eskatuta edo ofizioz. Arau-hauste arinen kasuan, hasteko datatzat hartuko da interesdunari salaketa jakinarazteko eta alegazio epea irekitzeko igorritako idazkian agertzen dena.

7. Kasu bakoitzean dagokion udal organo eskuduna arduratuko da zehatzeko ahalmena erabiltzeaz, betiere kontuan hartuz zehatzeko ahalmenen printzipioak, aipatzen direnak Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legean eta Zehatzeko Ahalmenaren erabilerari buruzko Erregelamendua onesten duen abuztuaren 4ko 1398/1993 Errege Dekretuan.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza honetan aipatzen ez den orotan, jarraitu beharko da xedatzen dena Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legean, Arriskutsu gerta daitezkeen animaliak edukitzearen gaineko araubide juridikoari buruzko abenduaren 23ko 50/1999 Legean, lege hori bera garatzen duen martxoaren 22ko 287/2002 Errege Dekretuan, eta animalien osasunari, ingurumenari, animalien ustiapenari, eta bestelakoei buruz aplikatzekoak diren gainerako xedapen orokor guztietan.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indarrik gabe gelditu dira ordenantza honen aurka jotzen duten maila bereko edo txikiagoko udal arauak edo honetan araututako gaietarako buruzko xedapenak dituztenak.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehenbizikoa._Ordenantza honen arabera arriskutsutzat har daitezkeen animalien titular edo edukitzaileek sei hilabeteko epea izanen dute animalia horiek edukitzeari buruzko udal lizentzia eskuratzeko eta ordenantza honi egokitzeko.

Bigarrena._Ordenantza honek Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.